



## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Polentzi Markiegi alkate izateagatik eta bere ideiak defendatzeagatik fusilatu zuten tropa frankistek, gerra zibila bete-betean zela, orain dela 80 urte.

Gogora ekarri nahi ditugu gertakari haiek eta omenaldi hau egin garai hartan korporazioa osatzen zuten kide guztiei, frankistek eskubide guztiak kendu zizkietelako.

Hauexei, hain zuzen ere:

Polentzi Markiegi (alkatea)

Marcelino Egaña

Miguel M. Beristain

Roman Arostegi

Fernando del Valle

Pedro Gartzia

Jose Martija

Francisco Oñederra

Esteban Antia

Javier Aginagalde

Francisco Osa

Korporazio kideei ez ezik, baita fusilatu zituzten gainerako herritarrei ere.



Bestalde, euren eginbeharrak betetzeagatik udal langileak zigortzeko hartutako erabakia, 1937ko urtarrilaren 17ko Junta Nazionalarena, ez dugu ontzat ematen. Beraz, aitortza erakutsi nahi diegu zigortutako udal langile hauei:

- Manuel Etxaniz (mediku titularra)
- Jose Sagarna (argindarraren arduraduna)
- Eduardo Barrera (botikaria)
- Gumersindo Andonegi eta Nikolas Unanue (argindar zentralaren arduradunak)

Baita, alde egiteagatik kaleratutako beste hauei ere:

- Jaime Lonbide (Itziarko medikua)
- Antonio Urkaregi (argi eta uraren arduraduna)
- Juan Díaz (iturgina)
- Antonio Azkoitia eta Marcos Etxeberria (udaltzainak)

Azkenik, gertatutakoak gogoratu eta gaitzetsi nahi ditugu omenaldi honekin, euren ideiak defendatzeagatik horrelakorik berriro inori gerta ez dakion. Horrekin batera, ez ditugu ahaztu nahi, gaur egun, hainbat gerra eta miseriatik ihesean dabiltzan milaka errefuxiatuak; horiek ere, orain dela laurogei urte gurek izan zuten harreraren adinakoa behintzat merezi dute eta.

Deba, 2017ko urriaren 4a.